



MUSIKA

Adorea eta grina sentitu



KLIK KLAK

JOXI UBEDA GOIKOETXEA

Hori da sasoi! Bizitasuna eta adorea. Taldearen izenak berak dioen bezala, dena ematen dute kanta bakoitza jotzean. Gogotsu aritzen dira, gozatu egiten dute, eta energia eta grina handia transmititzen dute.


Ondarroako hiru gazte dira Dena taldeko kideak –Beñat Eizagirre (ahotsa eta gitarra), Xabat Ituarte (bateria eta ahotsa) eta Unai Aretxabaleta (baxua eta ahotsa)– eta haien lehen diskoa hasieratik amaierara arte segidan entzuteko modukoa da, zinez. Katak ederrak dira eta ekoizpena ere bai, soinu indartsua, potoloa eta ozena gauzatu baitute, oso ona.

Rock, stoner rock, hardcore, post-hardcore, trap eta elektronika ukituak dituzten katak entzun daitezke. Taldekideek jakin-min handia

duela nabari da, eta haiek aitortu dutenez, talde berriak bilatzea eta ezagutzea atsegin dute, sorpresak aurkitzea, gustuko dituzten musika estilo eta joeretak taldeen artean.

Gehienbat erritmo azkarrak eta astunak jotzen dituzte, mozketeekin eta geldiuonekin, baina lasaiagoak eta leunagoak diren pasarte batzuk ere entzun daitezke. Hori dena ederkiki uztartu dute. Doinuak gordinak dira, gogorrak eta basatiak gehienak, baina melodia politak ere egiten dituzte, gitarraren marrazkiekin ongi lagunduta.

Kanta guztiek euren artean zerikusia dute, lotura bat. Ezer ez sentitzea da gai nagusia, bakardadea, apatia eta ezjakintasuna, eta kritika gaur egungo gizarteari eta autokritika ere egiten dute. Zenbait kantarekin bideoklipak



EZER SENTITZEKO

DENA

AUTOEKOIZPENA, 2020

egin dituzte, doinuak eta mezuak, entzuteaz gain, ikusi ahal izateko, estetika jakin bat helarazteko.

Taldea 2017an sortu zen eta hiru urteotako lanaren emaitza da haien lehen diskoa, ederra. Internet bidez lortu dute proiektua finantzatzeko dirua biltzea, *crowdfunding*-a eginez, eta helburua lortu dute: estudio batean sartu, esperientzia bizi eta lan on bat egin, grinaz, betiere. Mutrikuko AME estudioan jardun dute, Axular Arizmendirekin, eta grabazio saioetan bi lagun aritu dira kolaboratzaile moduan, ahotsarekin: Ruben Barnedo eta Paule Bilbao.

Orain, diskoarekin, ahalik eta jendaurreko emanaldi gehien egin nahi dituzte. Haien saioak ikusteko, entzuteko eta sentitzeko modukoak izango dira. ●